

Ikusleen aztura moralak kolpatu nahi ditu 'Carnicero español' antzezlanak Donostian

Lugaritzen izango da bihar, etzi eta etzidamu Legaleon T-k koproduzitutako obra

Suitzan «harrera polemikoa» izan ondoren, Donostiara heldu da 'Carnicero español', Irungo Legaleon T - L'Alakran eta Genevako Theatre Saint Gervais konpainiek koproduzitutako antzezlanak. Rodrigo Garcia idazle madrildar gaztea da obraren egilea, eta Oscar Gomez Mata aktore donostiarra da antzezpeneren zuzendaria.

Juan Luis Zabala / Donostia



Oscar Gomez Mata, Pierre Mifsud eta Delphine Rosay, obrako hiru aktoreak emanaldian.

IRUNGO Legaleon T - L'Alakran antzerki aktibismo eta agitazio konpainiak eta Genevako Theatre Saint Gervais konpainiak koproduzituriko *Carnicero español* antzezlanak ikusteko aukera izango da bihar, etzi eta etzidamu —hau da, apirilaren 4, 5 eta 6an— Donostiako Antigua auzoko Lugaritz kultur etxeko antzokian. Emanaldi guztiek arratsko 20:00etan izango dute hasiera.

Lugaritzko hiru emanaldien ondoren ez da obra hau Euskal Herrian ikusteko beste aukerarik izango 1998ko otsail edo martxora arte, Ana Perez Legaleon T konpainiako kideak Donostian egindako aurkezpenaren esan zuenez. Izan ere, obran parte hartzen duten aktoreetako batzuek Genevan hainbat konpromezu dute tarte horretan, eta Legaleon T konpainiak *¡Ubu!* obra arrakastatsu eta saritua ematen jarraitzeko (Txema Zubia saria eman berri dio Legaleon T konpainiari Antzerkiaren Adiskideen Elkarteak lan honi esker). Lugaritzko emanaldi hauek Norika Txiapusoren ahaleginari esker egingo dira», esan zuen Perezek, Lugaritz kultur etxeko antzerki emanaldien arduradunari bere esker ona agertuz.

Rodrigo Garcia antzerkigile eta bideogile madrildarra idatzitako *Notas de cocina* eta *Carnicero español* antzezlanetan dago oinarritua Legaleon T - L'Alakran eta

Theatre Saint Gervais konpainietako aktoreek Donostian emango duten *Carnicero español* antzezlanak. Lugaritz kultur etxeko emanaldiak izango dira obra Euskal Herrian ikusteko lehen-dabiziko aukera. Aurretik Suitzako bi hiritan eman du obra hau Oscar Gomez Mata donostiarrak zuzendutako aktore taldeak: Genevan eta Lausanan. Genevan otsailaren 25etik martxoaren 4ra bitartean frantsesez eta martxoaren 5etik 16ra bitartean gaztelaniaz; Lausanan gaztelaniaz soilik, martxoaren 20tik 22ra bitartean.

Suitzan egindako emanaldiek «harrera polemikoa» izan dutela adierazi zuen Oscar Gomez Mata zuzendariak atzoko aurkezpenan. «Pasioak sortu ditu obrak hala miresleen nola kontrakoentzaren artean». Suitzako gizartearen alderdirik atzerakoiak ez du obraren gordintasuna begi onez ikusi, Gomez Mataren aburuz. Beste sektore batzuetan, aldiz, aurrerakoiak, onuragarritzat jo dute Suitzan era honetako emanaldi bat ikusteko aukera izatea. «Gure emanaldian kol-

peak kolpeak dira, eta irainak irainak. Rodrigo Garcia antzerkigintzak hala jokatzeko eskatzen du», azaldu zuen Gomez Matak.

Suitzako azken emanaldietan aretoa beteta

• Suitzan egindako azken emanaldietan aretoa betea izan zutela gogoratu zuen Gomez Matak, eta hori «oso pozgarria» izan dela, «antzerki mundutik aparte bizi den jendeak ere, egunkarietako kritikak irakurtzen ez dituen jendeak, gure lana oso gustukoa duela baieztatu digulako».

Rodrigo Garcia idazle madrildarra 33 urte baino ez ditu, baina hark sortutako antzezlanak zazpi hizkuntzara itzulirik eman dira argitara eta Hego Amerikan zein Europako estatutik gehienetan taularatu. «Biolentzia, lizunkeria eta arrunkeria berriak azpimarratzen ditu Garcia antzerkigintzak, ikuslearen aztura moralak kolpatu nahirik», adierazi zuen Gomez Matak.

Rodrigo Garcia obra hau-tatu izana Irungo Legaleon T

antzerki konpainiaren ildoarekin bat datorrela azpimarratu zuen aktore eta zuzendari donostiarrak. «Erreferente sozial garbiak dituen antzerkia egin nahi dugu, eta hori bilatzen dugu hala edukinetan nola forman, hala testuan nola testua eszeneratzeko moduan».

Obra zuzentzeaz gain, aktore lana ere egiten du Gomez Matak *Carnicero español* obran. Berekin batera beste bi aktore izango dira oholtza gainean, suitzarrak biak: Delphine Rosay eta Pierre Mifsud. Argiteriaren eta eszenografiaren ardura Michel Faurerena da, soinu bandaz Bell Wald arduratzen da, eta soinu eta argi teknikaria Michel Delebecq da.

Hainbat erakunde eta enpresaren dirulaguntza izan dute Legaleon T - L'Alakran eta Theatre Saint Gervais konpainiek *Carnicero español*-en ekoizpena finantzatzeko, Eusko Jaurlaritzarena, Genevako Kantoiko Heziketa Departamenduarena eta Irungo Udalarena, besteak beste. X

Eolo Barakaldo antzokiko talde izatea kritikatu du Udaleko oposizioak

■ Antzerki taldeak hitzarmen bat sinatu du antzokiarekin

Erredakzioa / Bilbo

URTE LUZEETAN egoitza Durangon izan ostean, Eolo antzerki taldea hemendik aurrera Barakaldo antzokiko talde finkoa izango da. Hau da, egoitza, lan lekua eta estreinaldi tokia Barakaldo antzokia izango du Eolo taldeak.

Paco Obregonek zuzentzen duen taldeak hiru antzokiri egin zien bertan laketeko proposamena, eta horietan Barakaldo antzokiak eman zien baiezkoa. Lehen aldian da Euskal Herrian antzoki batek antzerki talde bat aterbetzen duena, baina Europan usu gertatzen da. Paco Obregonek berak adierazi duenez, «antzerkiak jendeak ondo hartu du ekimen hau. Aurrekari garrantzitsua dela uste dut, eta orain ondo legoke beste antzerki talde batzuek berdin jokatu balute inguruko antzokiarekin harremanetan jarritz».

Barakaldoko Udaleko agintarien oniritzia jasota, abian da ekimena, baina oposizioak (HB, IU eta PP alderdiek osatzen dute) hainbat kritika egin dizkio taldeari. Batetik, ekimena urtarrilean indarrean jarri bazen ere, orain astebeteko Administrazio Kontseiluan egin zuten bozketa. Bestetik, taldeak bere gain hartu dituen hainbat lan ere kritikatzeko modukoak direla uste du oposizioak. Antzokiko aldi baterako langileen kontratazioa Eolo taldearen esku geratu da; lan hori Mymain enpresak egiten zuen lehen. Aldaketa horren inguruan, taldeak hauxe esan du: dirua aurrezteko hartu dela erabaki hori. «Antzokiak duen diru aurrekontua txiki-gia dela eta, lehen enpresa horrek egiten zuen lana orain Eolok egingo du eta aurrezten den dirua antzerkia programatzeko baliatuko da. Gure asmoa ez da egitarauaren diseinuan parte hartzea. Gure lana ikusleak antzokira erakartzea izango da». X

IRAGARKI MERKEAK (943) 300222

IRAGARKI MERKEAK

**31 x 33 mm
MODULO
(Iparraldea)**

Eguna: 80 l.
Astea (6 egun): 75 l.
2 aste (12 egun): 63 l.
Hilabetea (24 egun): 50 l.

**66 x 33 mm
2 MODULO
(Edizio orokorra)**

Egun: 5.200
Astea (6 egun): 4.100
2 aste (12 egun): 3.700
Hilabetea (24 egun): 2.600

**66 x 69
4 MODULO
(Edizio orokorra)**

Eguna: 10.400
Astea (6 egun): 8.200
2 aste (12 egun): 7.400
Hilabetea (24 egun): 5.200

31 x 33 mm

**31 x 33
MODULO
(Edizio orokorra)**

Eguna: 2.600
Astea (6 egun): 2.050
2 aste (12 egun): 1.850
Hilabetea (24 egun): 1.300

31 x 33 mm

**31 x 33
MODULO
(Araba-Nafarroa)**

Eguna: 1.950
Astea (6 egun): 1.600
2 aste (12 egun): 1.400
Hilabetea (24 egun): 1.000

Titiriteroak

Antzerkia
Haur berbena
Zirku Txilerra

908772347
(943)467597